

Neskak, korrika egitera


Raul Perez

hilaren 19an, igandea, Lilaton lasterketaren hamaikagarren edizioa jokatu da Donostian. Aurtengo berrikuntzarik aipagarriena ibilbidea da, betiko ibilbidea berreskuratu baita. Parte hartzaileak Alderdi Ederretik aterako dira eta bost kilometroak egin eta gero, helmuga Bulebarreko oinezkoen eremuan izango dute. Antolatzaileek azken urteotan izandako bostehun parte-hartzaileei eutsi nahi diete. Bost kilometroak egiteko nahikoa denbora izango dute lasterkariak: berrogei minutu hain zuzen.

Sari berezia

Lilatonen hiru maila bereiztuko dira: juniorrak (14-17 urte bitartean), seniorrak (18tik 39ra) eta beterranoak (40tik gorakoak). Maila bakoitzeko lehenengo hirurek garaikurra eskuratuko dute eta partehartzaile guztiei kamisetak banatuko zaizkie. Urtero bezala partehartzaile zaharrenek ere trofeoa bereganatuko du. Iaz, taldeka korrika egitea saritu zen arren, aurrean horren orde sari sorpresa bat banatuko dute lasterketa amaitutakoan. Arantxa Gurmendi antolatzaileetako batek dioskunez, "taldeko ekimenak iaz harrera ona izan zuen arren, gure lasterketaren ezaugarriak kontuan hartuta, nahia go dugu sari berezi bat ematea atletismoa egiteko gaitasuna saritzea baino".

Lasterketa Donostian jokatzen den arren, Arrasate,



Emakume asko animatzen da Lilatonen parte hartzera. Antolatzaileen ustez, aurrean ere 500 bat lagunek parte hartuko dute lasterketa honetan.

Hondarribi edota Nafarroatik hainbat korrikalari etortzen dira urtero. Gainera, iaz antolatzaileek neska gazteak erakartzeko egindako sustapen lanak emaitzak izan zituen eta Lilatona gero eta ezagunagoa da gazteen artean.

Duela hamaika urte sor-

tutako lasterketa emakumei zuzenduriko lehenengoa izan zen Euskal Herrian, eta baita Estatu mailan ere. Ondoren Madrilen eta Iruñean antzeko kirol ekimenak sortu ziren. European ere badira horrelako lasterketak, Parisen, esaterako.

Kirola egiteko lehen urratsa

Maku Zuzuarregi sendagile donostiarra duela hamar urte hasi zen lasterketan parte hartzen. Makuk aitortu digunez, "Uliako Gimnastikan parte hartu nuenean azkena iritsi nintzen eta ikusle batzuen isekak entzun behar izan nituen. Hala eta guztiz ere, korrika egiten jarraitu nuen, lasterketa batean parte hartzeak erakartzen nau eta horregatik Lilatoneko hamar edizioetan parte hartu dut". Makuk 48 urte dituen arren, hainbat lasterketan parte hartzen du urtero, eta Parisen antolatu Lilatonen ere izan da. Bere esanetan, "Lilatonak emakumei kirola ezagutu eta lehenengo pausoak emateko aukera eskaintzen die. Dudan guztia emateko asmoz aterako naiz igandean, lasterketa oso gustukoa baitut".



Irristaketa artistikoa Donostian

Hilaren 19an Euskadiko Irristaketa Artistiko txapelketa jokatuko da Anoetako izotz jauregi berrituan. Donostiako Txuri Berri taldeko eta Gasteizeko patinatzaileek parte hartuko dute. Egungo Euskadiko txapelduna Nora Etxeberria donostiarra da faborito nagusia.

Bera Bera Europako Txartelaren bila

Bera Bera eskubaloi taldea European jokatzeo aukera ematen duen laugarren postura hurbildu da, Vicar Goya Almeriako taldeari 14-21 irabazi eta gero. Orain bi talde daude European jokatzeo eskubidea ematen duen laugarren posturako lehian: Bera Bera eta Ro`Casa taldeak.